

6. Bezeroarekiko harremanak:

Gure enpresak, bezeroarekin oso harreman estua izatea nahi dugu. Guretzako, bezeroa da garrantzitsuena eta gurekin konfidantza osoa izatea nahi dugu. Arazo bat badauka gure enpresarekin, guri berehala komunikatzea nahi dugu, ahalik eta erosoan egoteko. Gure kasuan, enpresaren eta bezeroaren artean egongo litzatekeen harreman mota laguntza pertsonalekoa eta laguntza pertsonal eskainikoa izango litzateke, hau da bezeroaren ongizate mentalean arreta jartzea.

Halaber, bezeroari zerbitzu bat eskain diezaiokegu telefonoz edo Internet bidez, bezeroaren eta enpresaren arteko komunikazioa errazteko. Bezeroa erosoago egon dadin, lehenik eta behin, berarekin hitz egin beharko genuke, eta zer laguntza mota jaso nahi lukeen galdetu. Bere asmoak jakin ondoren dauden tarifa mota gustiak erakutsiko beharko genuke. Eta aukeratzen duenaren arabera, kontratu bat sinatzea. Eta azkenik, lehen hilabeteetarako eskaintza edo sustapen motaren bat edo horrelako zerbait eskain diezaiokegu ; erabakitzen joango garenaren arabera da.

Gure enpresarentzat balore garrantzitsuenak konfiantza (gurekin argi eta garbi hitz egiteko), segurtasuna, neurrira egindako tratamenduak (pertsona bakoitzari bere arazoaren araberekin tratatuko dugu), profesionaltasuna (hori guztia seriotasunez hartzen dugu bezeroari behar bezala laguntzeko), kalitatea (gure langileak arlo psikologikoan profesionalak dira), fideltasuna eta datuen babesa.